

ERANSKINA: Ordiziako EH Bildu eta EAJ-PNV arteko akordio dokumentua

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN INGURUAN ORDIZIAKO EHB ETA EAJ ARTEKO AKORDIOA

Ordiziako herriak dituen erronka eta lehentasunei aurre egiteko, lau urteko ziklo politiko laburren mugak eta inertziak gainditu behar dira. Erronka eta lehentasun horietako asko partekatuak dira Ordiziako bi udal talde nagusien artean. Horregatik, EAJ-PNVk eta EH Bilduk 2026ko aurrekontuetan eragina izango duen akordioa erdietsi dugu, udalerrarentzat funtsezkoak diren hainbat inbertsio eta jarduera estrategikotan adostasuna lortuz.

Erronka estrategiko horiek jarraian jasotzen dira:

1.- EUSKARA

Euskararen ofizialtasuna defendatzea esparru guztietan, eta ordiziarrek euskaraz artatuak izateko eta Ordiziako udal langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea defendatzea.

Herri mailan euskara bultzatzea, eta euskara ikasteko doakotasuna bermatzea diru-sarrera urriak dituzten pertsonei batez ere.

2.- HAPOaren BERRIKUSPENA

Geroz eta konplexuagoa den gizartean, geroz eta konplexuagoak bilakatzen ari dira Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrak, udalerrri oso baten antolaketa jaso behar dutelako, eta antolaketa horrek, hirigintza esparruak aspaldi gainditu zituelako. Ingurumena, mugikortasuna, klima aldaketa, berdintasuna, irisgarritasuna... Geroz eta eskakizun gehiagori erantzun behar dien Plan Orokorra Ordizia bezala udal baten baliabideekin kudeatzea oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren. Horregatik, HAPOaren berrikuspena lizitazio publikora aterako da, hurrengo 3-4 urteetan garatzeko.

*Aurrekontua + konpromiso kredituak

2026 (6 hilabete)	2027 (12 hilabete)	2028 (12 hilabete)	2029 (6 hilabete)
120.000€	120.000€	120.000€	100.000€

***Aurrerakinean ez dauden irizpideak eta HAPO berriak kontuan izan behar dituenak:**

-Irisgarritasuna: San Jose egoitza – Sagastibeltza

Anselmoren baratza, Garagartza plazaren atzealdea eta Sagastibeltza lursaila lotuko dituen igogailuak, San Jose egoitza lotuko luke herrigunearekin, eta parke eremu berri bat eskaini eremu horretan ordiziarrei. Beraz, estrategikoa da, egitasmo hori burutzeko beharrezkoa den Sagastibeltza lursaila eskuratzea. Lursail horren izaera urbanoa ikusita, HAPOaren berrikuspeak alternatiba ezberdinak aztertu beharko ditu, eremu horretan hiritartze jarduketa baten bitartez helburu horiek lortzeko (2017ko Aurrerakinean aukera hori ez zegoen).

-Irisgarritasuna: Altamira

Irisgarritasun Planean dauden igogailu guztiek ekar ditzaketen aldaketa urbanistikoa aztertzea eta ahalbidetzea.

-San Bartolome alternatiba gehiago

2017ko Aurrerakinak jasotzen duen alternatiba bakarraz gain, beste batzuk aztertzea.

***Gainera, HAPOaren berrikuspenak kontuan izan beharko ditu:**

Landa herri bideen inbentarioa

Mapa morea

Irisgarritasun Plana

Mugikortasun Plana

Klima eta energia plana

Zarata Mapa

Etxebizitza ekintza plana

Mariarats arroa berroneratzeko azterlana

Ordiziako Parke Sarea

Lizitazioko pleguak prestatzen ari dira, eta 2026an aterako da.

3.- KIROL AZPIEGITURAK (MAJORI-ALTAMIRA-BETI ALAI)

3.1.- Majori edo kirol azpiegituren zerbitzuaren antolaketa

Erakunde eraginkor eta sendo bat lortzea, Ordiziako Udalaren titulartasuneko kirol-instalazio guztiak modu eraginkorrean kudeatuko dituen (kudeaketa erantzukizun tekniko).

3.2.- Kirol azpiegituren egokitzapena

Majori kiroldegiko hezegunea eraberritzeko proiektua lizitatu zen, baina emaitza Ordizia Udalarentzat gauzatzeko ezinezkoa zen proiektu bat izan zen. Alde batetik, aurrekontuarengatik, 11,6 milioi euro inguru, eta bestetik, exekuzio epeek iraungo zuten denboran, herria igerileku gabe geratuko zelako.

Egoerari aurre egin, eta bideragarria izango den proiektu bat lortzeko, honako prozesua proposatzen da:

3.2.1- Kanpoko igerilekua 1.000.000€

2026ko irailean udako denboraldia amaitzen denerako, kanpoko igerilekuko lanak lizitatuta egotea da helburua, ixten den egunaren biharamunean lanekin hasi, eta 2027ko denboraldirako igerilekua berrituta egoteko.

Funtsean, gaur egungo 50 metroko igerilekuaren barnean egokituko litzateke igerileku berria. Honek, lur indusketak eta antzeko lanak egitea aurrezten du, eta sakonerak txikiagoak izango direnez, egungo igerilekuaren barnean egin behar diren 1.000.000 €, 2026ko aurrekontuan

3.2.2.- Barneko igerilekua

2026an Majori eraberritzeko proiektu berria lizitatzea adosten da. 200.000€

Proiektuaren exekuzioa bideragarria izan dadin, hiru fase garbitan banatu beharko da gutxienez.

1 fasea: aldagela berriak eraiki eta igerileku txikia eta sauna birkokatuko dituen, obra 2026an lizitzatzeko helburua. 1.000.000 €

2 fasea: barruko igerileku berria eraikitzea, gaur egungo gunean, baina 6 kaletik 8-9ra igarota. Eraikuntza 2027an. 1.800.000-2.000.000 €

3 fasea: barruko bigarren igerileku bat eraikitzea, posible balitz 25 metrokoa. 2.400.000€ - 3.000.000€

3.2.3.- Beti Alai Frontoia

Frontoi handiaren estalkia eraberritu, gaur egun dagoen fibrozementuzko amiantodun materialak kentzeko, eta ordezeko estalki berria jartzeko. 350.000€

4.- AUZOAK

4.1.- Altamira

Tximista eta Altamira lotuko dituen igogailuaren proiektua lizitatu 2026an, exekuzioaren benetako aurrekontua ezagutzeko. 150.000€, 2026ko aurrekontuan. (bideragarritasun azterlanaren arabera, exekuzioa 1,7-2 miloi izango litzateke) Behin proiektua bukatuta, obra lizitatzeko eta finantzaketa konpromisoa hartzen da.

4.2.- Buztuntza

Oria ibaiko pasealekua eraberritu: 320.000€ 2026ko aurrekontuan

Otaza plaza eraberritzea negoziatu bizilagunekin: 110.000€ 2026ko aurrekontuan

Urdaneta eskolaren II Fasea 2026an, eta III Fasea 2027an. Proiektuan lizitatu dira. 700.000€ 2026ko aurrekontuan. Litekeena da, martxoan likidazioa eginda dagoenean, diru gehiago txertatu behar izatea, proiektuen aurrekontuaren arabera (300.000 euro inguru).

4.3.- Urdaneta kalea

Urdaneta kalearen urbanizazioaren bigarren fasea (derrigortuta gaude azpiegiturak eraberritzeko, ura eta saneamendua) Gipuzkoako Urakekin hitzarmena. 770.000 €

5.- KULTURLAB

5.1.- Herri Antzokia

2026an, Ampuero eta Etxezarreta kalea lotuko dituen igogailua eraiki. Igogailua + arrapala + sarrera berria + barne eskilara + komunak: 765.000€ euro

2026an, eraikuntza birgaitzeko proiektua esleitu, paraleloan Eusko Jaurlaritzako babes maila lortu, eta 2027an, Espainiako Ministerioko %2 kulturalaren laguntzak eskatzeko.

Proiektua: 200.000-300.000 euro 2026an (finantzaketa 2025eko soberakinetik)

Falta den lokala erostea: 250.000 € inguru (finantzaketa 2025eko soberakinetik)

5.2.- Barrena

Liburutegia lehenengo solairura mugitu, eta erakusketa eta hitzaldi gelak, behe oinera lekualdatzeko azterketa edo proiektua. 120.000€, 2026ko aurrekontuan.

6.- LANDA-BIDE PUBLIKOEN MANTENTZE LANAK

Udalerriko bide publikoen mantentzea eta hobekuntza lanak indartzeko konpromisoa. Konpromiso hau urtez-urtekoa izango da, landa bide publikoen inbentarioan jasotako bideen mantenua indartzeko. Hurrengo bost urteetan, urtero 100.000 euro, gutxienez, erabiliko dira.

2026an bide publiko nagusietan kokatzen diren kunetak eta urak biltzeko guneak, urtean zehar, gutxienez behin, garbituko dira. 25.000€, 2026ko aurrekontuan

2026an honako konponketa hauek egiteko konpromisoa hartzen da (100.000€, 2026ko aurrekontuan):

- 1.- Egutera bidean Arantzegi baserriraino asfaltatzeko falta den zatia asfaltatzea.
- 2.- Bide publiko nagusietan, Iturtxo bidean Arantzegi baserriraino, Egutera bidean Arantzegi baserriraino eta Okorro bidean Oiangu-txikiraino, abiadura- seinaleak eta hainbat puntutan ispiluak jartzea.

7.- AUDITORIARIK

36.300€ jasotzen dira 2026ko aurrekontuan. Hasierako proposamenean zegoen 18.000 euroko partida bikoizten da, udalaren auditoriaz gain, Majorikoa ere egin ahal izateko. Beti ere, kontuan hartuta, kontu-hartzaileak ontzan eman behar duela.

8.- BIZIKIDETZA ORDENANTZA OSATU

2026an parte-hartze edo entzute ariketa baten bitartez bideratzea aurreikusten da.

Horretarako partaidetza prozesuetan 18.150€ko partida jasotzen da.

9.- KALEEN GARBIKETA ZERBITZUA HOBETU

Kaleen garbiketa zerbitzua hobetzea eta indartzea ezinbesteko konpromisotzat hartuko da, udalerriko irudi eta bizi-kalitatea hobetzeko. Zerbitzuak beharrezkoak dituen errefortzuak, kanpokoak edota barnekoak, ahalbidetuko dira (baja egoerek sortutako gabeziak gainditzeko). Bestalde, garbiketaren intentsitatea eta maiztasunak hobetzea adosten da. Hau guztia bermatua izan dadin beharrezko prozedura osatu eta adostuko da 2026ko udara baino lehen.

10.- ARGITERIA PUBLIKOA HOBETU

Argiteria publikoak sarritan izaten dituen gorabeherei azkar eta eraginkortasunez erantzutea ezinbesteko konpromisotzat hartuko da, batez ere, biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, alderdiek konpromezua hartu dute 2026ko lehen hiruhilekoan prozedura bat adosteko, edozein gorabeheraren aurrean erantzun azkarra eta eraginkorra bermatzeko.

11.- OIANGUREN INSITUTUA

Estalki berria egiteko Plan Berezia Hezkuntzak egin behar du, baina konpromisoa hartzen da tramitazio eta onarpen prozedurak ahalik eta azkarren garatzeko, eta bere garaian egindako lursailaren lagapena eguneratu eta txukuntzeko, gaur egun Oiangurenek hesituta duen eremuarekin bat egin dezan.